**AYUNTAMIENTO DE BERRIOZAR**
***BERRIOZARko UDALA***

**BERRIOZARKO "URTXINTXA" UDAL HAUR ESKOLAN MATRIKULA EGITEA**

**2018ko MAIATZAREN 21etik 25era.**

**Tokia: Berriozarko Urtxintxa Haur Eskola (Errota k., 6).**

**Orduak: 8:30etik 11:30era.**

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

- Matrikularen kuota ordaindu izanaren ordainagiria. 50 euro sartu behar dira Caixa Bank-eko **2100.5184.57.2100248980 kontuan. Umearen izen-abizenak agertu behar dira ordainagirian.**
- Haurra inskribatua agertzen den Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia. Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek.
- 2017ko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Aitorpenaren fotokopia, aitarena eta amarena, edo, halaxe badagokio, 2017. urtean lortutako diru-sarreren frogagiriak. Agiri horiek 2018ko ekainaren 30a arte aurkeztu daitezke. Ez bada agiririk aurkezten gehienezko kuota ezarriko da. Ez dute agiri hori aurkeztu beharko gehienezko kuotari dagokion errenta edo altuagoa daukaten pertsonek, hau da, 15.000€ per capita.
- Errentaren aitorpena egiteko beharrik ez badute, horrela egiaztatzen duen Nafarroako Gobernuaren agiria aukeztu beharko da, baita lan-bizitzaren agiria eta familiaren 2017ko diru-sarrerak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren agiriak ere.
- Beste udalerri batean bizi diren haurren kasuan, modulutik udalari dagokion portzentajea finantzatu izanaren egiaztagiria. Finantzaketa hori bizilekuko udalaren edo familiaren beraren kontura izanen da.
- Ordainagiriak helbideratzeko, banku entitatearen libretaren orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituena. Agiri hori ez dute aurkeztu beharko aurreko ikasturtean zentroan egondakoek, kontu-zenbaki bera baldin badute.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.


| Plaza Euskal Herria 1<br>31013 Berriozar (Navarra) | Euskal Herria plaza 1<br>31013 Berriozar (Nafarroa) |
| --- | --- |

Tfno(a) 948 300 005 - Fax(a) 948 301 034 - www.berriozar.es - berriozar@berriozar.es